

Islamaren modernitateaz

Las grandes religiones han fundamentado sus creencias en Escritos Sagrados, y para ello han contado con un canon escriturario, completo y excluyente. El único libro sagrado del Islam es el Corán, y su lectura, inteligencia, interpretación, difusión y aplicación religiosa y social han originado dos grandes cismas (sunita, chiita) y cuatro grandes Escuelas jurídicas. Toda esa tradición, muy hecha y fijada en el pasado, deberá afrontar el desafío de la modernidad.

Erljioek, beren Idazki sakratu eta tradizioei zor dieten leialtasunagatik, iraganari begira bizitzeko joera dute, garaian garaiko eskakizunei gehiegi so egin gabe. Moderno izateak, garaian garaiko izateak baino fidel izateak pisu handiago izan ohi du Erljioetan. Hala ere, guztien historian ez da falta bestelako ahalegin eta mugimendurik, ezta Islamean ere.

Korana eta tradizioa

Islam-aren lehen oinarria Korana da, Mahoma hil ondoren (632), bizirik zela beroni jasotako hitz beretan, azkenean idatzita jarri zena (650-656. urteetan). Koranak, hitzez hitz, Allah-k Mahomari sinesgai errebelatu bezala esandakoa jasotzen du, eta esana nahiz geroago idatzia Jainkoarena berarena da.

Hitzak eta testua ongi esan eta finkatuta ere, Koranaren ulerpene ez da izan beti erraza, eta ingurukon lagunek behin eta berriz eskatu zioten argibiderik Mahomari berari, esandakoei argitasun hoberik eman ziezaien.

Horren osagari, Koranaren ondoko hurrengo urratsean, Profetaren beraren hitzak eta jokabideak jasotzea izan zen lana (*hadith* deitua), betiere Korana hobeki ulertzen lagunduko zutelakoan; baina *hadith*-a laguntza ona izanik ere, bildutako esanak eta albisteak ez ziren gertatu erabat fidagarri, jatorrak eta sasikoak nahasian bildu zirelako.

Korana eta *hadith* horiek hobeki ulertzeko ahaleginean lau Eskola juridiko nagusi sortu ziren sunnismoan (egin kontu sunitak direla musulmanetako %85): hanafismoa, iritzi libreari askatasun handiagoa ematen ziona (gaur egun: Turkia, Asia Erdia, Txina, India, Siria); malikismoa, ortodoxia zurrunagoa zuena (Egipto, Magreb, Afrika Beltza, Arabia, Indonesia; Al-Andalus); xafismoa, metodologia juridiko malgu aldakorragoa proposatzen zuena (Hego Arabia, Siria, Irak, Pakistan), eta laugarrena, hanbalismoa, integrista hertsia (Emirerriak, eta inguruetan). Laurak VIII-IX. mendeetan sortutakoak dira, eta beste hainbat talde txikiagotan banatu ziren gero. Orain Saudi Arabian nagusi dena wahhabismoa da (hanbalismo barruko Eskola).

Hortaz, mendeak zehar Koranak, *hadith*-ak eta ondoko Eskolek (teologiko eta juridikoek) moldatu dituzte musulmanen sinesmena, bizipen espiritual pertsonala, lege-sistema (*xaria*), gizarte eta eraketa politikoa. Sarritan esan da Islama, erlijio hutsa ez baizik erakunde erlijioso-politiko oso bat dela, dena batean hartu behar dena. Hain zuzen, tesi historiko horixe da, mugimendu arabiar laikoak ukatu nahi izan duena, Islam jator eta libre batean erlijioa eta aginte politikoa banagarriak direla baieztatuz.



Modernitatea: bi mendeko krisia

Gaurko Islama dela eta, interesgarria gertatzen zaigu, modernotasunera moldatzeko Mendebalde honetako historia kristauak bizi izan dituen une larriak gogoratzea. XVI. mendetik mantso baina jarraian zetorren gizartearen sekularitzea XX. ean nagusi bilakatu zaigu gure inguruetan. Ez da hori bake eta elkarrizketa samurrean gertatu: pentsamenduak eta garaiak Eliza instituzionaletatik urrunduz joan dira gizartean (Erljio-gerrateak, Iraultza Frantsesa, Filosofia, Politika, Mugimendu sozialak, etab.). Kristautasun instituzionalak zailtasun handiak izan ditu modernitatea ulertu eta berorrek in bitzen.

Islamaren iraganean, are zailagoa izan da hori, eta zailago gertatzen ari da Mendebaldeak eskaini eta beronetatik hartu diren aldakuntza politiko-ideologikoak gizarte islamiarreña moldatzea: giza eskubideak, familia monogamoak, emakumeen eskubideak, Estatu laizitatea, Estatu boterearen eta demokraziaren arteko bateragarritasuna, etab.

Islamaren menderik emankorrenak Kalifatuak izan ziren (Damasko, Bagdad, Cordoba...); Turkian desagertu zen azken Kalifatuak (1924). Galdurik zen, beraz, Kalifatuak definizioz zuen bi botereen, zibil-erlijiosoen, batasuna. Estatu musulmanak ahalzade ezinean erorita, Mendebaldeko kolonialismoa egin zen herrialde musulmanen jabe politiko eta ekonomiko (XIX-XX. mendeak).

Baina iragan hobeen oroitzapenak bere indarra izan du XX. mendean ere, erlijioan eta

gizartean betiko modu eta mentalitateei eusteko. Ia nonahi Eskola korandarrak bere lekua gorde du, baita laiko aitortu diren Estatuetan ere, eta erlijio tradizionalari leku egin zaio eskola publiko poskolonialean.

Horrekin batera, oinarri-oinarrian dagoen egoera erlijioso-kulturala gizartearen musulmantasuna da, bere burua ulertu eta bizitzeko modu tradizionala. Errejimen politiko laikoekin ere zaila izan da hori osorik modernotasunerantz mugiaraztea. Turkian bertan nolabaitekoa izan dena, eta Tunisian bertako soziologiari begira oso tentuz eraman dena.

Azken mende-erdian ikustekoa da, herrialde kolonialek askatasuna lortzean hartutako bidea: 1959ko Konstituzioaren arabera, laikoak zen Tunisiako Estatuak, baina meskitak eta eskoletako erlijioa Estatuak bere ardurapean hartu zituen; hala ere, Konstituzioak ez zuen nahi Islama erlijio ofizial izatea, ezta *xaria* musulmana Estatuaren Zuzenbide-iturri ere.

Orain bi arazo larri baditugu aurrean: 1) Erlijiotasun islamiarraren iturrien irakurketa historiko-kritikoa erabat premiazkoa du mundu musulmanak, berak aurrera egin ahal izateko, eta guztion onerako, eta 2) Garai hauetan, erlijiotasunean "Gerra Santuak" (*jihad*) zein leku izan dezakeen erabaki behar du (adibide eskas bat: jada 1999an indarkeriara eraman zezaketen testu erlijiosok eskola-liburuetatik kentzea erabaki zuen Aljeriako gobernuak).

Joseba Intxausti